Bizkaia orekan sakonduz

2021-2022

**Parte-hartzaileak**

Leartibai Fundazioa

Bermeoko Udala



# BIZINFISH

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA

## Helburua:

**Arrantzaren balio-kateko** enpresen **lehiakortasuna** hobetzea, sektorearentzat erreferentzia- eta konfiantza-gune bat sortuz. Horren bidez, hainbat arlotan (nazioartekotzea, berrikuntza, etab.) ezagutza partekatzeko eta enpresa-lankidetza sustatzeko.

## Azalpena:

Ekimen honek jarduera hauek egitea aurreikusten du:

- **Abiapuntuko diagnostikoa egitea:** Bizinfish osatzen duten enpresen mahaiaren lan-plana definitzea, enpresa horiei guztiei egindako galdeketa batean oinarrituta**.**
- **Sentsibilizazioa:** Berrikuntzaren garrantziari buruzko webinar bat egitea.
- **Enpresen inplikazioa:** Enpresak erakartzeko ekimenaren aurkezpena, honako hauetan parte har dezaten:
    - *Prozesuen berrikuntza: Prozesuen diagnostikoak egiten laguntzea, hobetzeko aukerak identifikatzeko eta horiek ezartzeko ibilbide-orriak zehazteko.*
    - *Berrikuntza lankidetzan (Team building): Sektoreko enpresen arteko lankidetza sustatzeko.*
- ***Informazio interesgarria zabaltzea Intool plataformaren bidez**. Informazio-buletinak egitea eta zabaltzea.*

**Parte hartzen duten enpresak.**
**19**

**BFAren finantziazioa**
**45.324,82 €**